

# Prensa oharra

## Nota de prensa



## MAIATZAREN 17A: HOMOFIAREN, LESFOBIAREN TRANSFOBIAREN ETA BIFIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

- **2023an, kolektiboaren aurkako 15 gorabehera-kasu erregistratu ziren, gehienak homofoboak**

Homofobiaren, Lesfobiaren, Transfobiaren eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Egunaren harira, 2023an Donostian izandako LGTBI+fobia gorabeheren inguruko hirugarren txostena aurkeztu du Aniztasuneko, Inklusioko eta Berdintasuneko zinegotzi ordezkari Cristina Lagék. Zaira García Dafontek egin du txostena.

Joan den urtean, LGTBI+ kolektiboaren aurkako 15 gorabehera erregistratu ziren Donostian; horietatik % 53,3 homofoboak izan ziren, gehienbat gizonen eragin eta jasan zituzten, eta batez ere espazio publikoan gertatu ziren.


Cristina Lagé zinegotziak adierazi duenez, "txosten horiek oso tresna baliotsuak dira kolektiboko pertsonen bizi dituzten diskriminazioak eta gorrotoarekin zerikusia duten gorabeherak zein diren jakiteko eta kolektiboak zer eskaera egiten dituen ezagutzeko. Horrela, epe ertain-luzerako joerak behatzeko aukera emango digun ikuspegi panoramiko bat lortuko dugu, eta, horrela, gaitasun handiagoa izango dugu LGTBI+fobiaren aurka eragiteko. Gure helburua da aurrera egitea politika publiko inklusiboak diseinatzen, sexu- eta genero-aniztasuna errespetatzen dutenak, pertsona guztien diskriminaziorik eza eta aukera-berdintasuna bermatzen dutenak, haien sexu-orientazioa, adierazpena edo genero-identitatea edozein dela ere".

# Prentsa oharra

## Nota de prensa

LGTBI+fobiari lotutako gorabeheren datuak eta inguruabarrak aurreko bi urteetako datuen antzekoak dira.

2021ean 19 gorabehera erregistratu ziren, 2022an guztira 18, eta iaz 15.



Homofobia da oraindik kausa zabalduena, 8 kasurekin, hau da, kasuen % 53,3, aurreko urteetan baino % 20 gutxiago. Ondoren, transfobia dago, 4 kasurekin (% 26,6), eta, ondoren, LGBTI+fobia, 3 kasurekin (azken horiek gorroto-diskurtsoei lotuta daude).

Gorabehera gehien udan gertatzen dira, zehazki ekainean eta abuztuan; beraz, nolabaiteko urtarokotasuna dagoela esan daiteke, ziurrenik garai horretan interakzio sozial gehiago dagoelako. Aurreko txostenetako gorabeherari begiratuta, gehienak udan gertatu ziren.

Bide publikoan erregistratzen dira eraso eta gorabehera gehien: 15 kasuetatik 10, aurreko txostenetan jasotako ildo berean. Espazio erdi-publikoak ere kontuan hartuta, kasuak 13 dira (% 86,7). Azpimarratu behar da kasuen % 13,3 eremu pribatuan gertatzen direla (etxeetan).

Eraso mota zabalduena hitzezkoak dira (% 42), ondoren fisikoak (% 33,3), diskriminazioa (% 12) eta mehatxuak (% 8,3).

Eraso fisikoak apur bat areagotu dira 2021/2022 urteekin alderatuta. Pertsona batek baino gehiagok egindako erasoek apur bat behera egin dute 2021etik 2023ra: 7 kasutik 4 kasura murriztu dira.

Erasotzaileen % 80 gizonak dira, jarrera eta portaera homofoboak dituzte.

Kasuen erdietan biktima gizona da, % 18 emakumea eta % 6,3 bestelako genero-espresioa duten pertsonak dira. Kasuen % 25ean ez da biktimen generoa ezagutzen edo zehazten. Pertsonak bakarrik edo bikotekidearekin daudenean jasaten dute erasoak.

# Prensa oharra

## Nota de prensa



Beraz, ondoriozta daiteke, datuek ez dutela gorabehera handirik izan azken hiru urteetan, kontuan hartuta ez direla gertatutako eraso guztiak salatzen, denborabilbide luzeagoa behar dela joerak berresteko.

Datuak iturri hauetatik lortu dira: Udaltzaingoa (7 kasu), Ertzaintza (5), Berdindu (1), Donostiako Udaleko Berdintasun Atala (1) eta azterlana egiteko erabili den helbide elektronikoa.